




Ikasteko eremuak



Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB) iritsi da La Salle ikastetxeetako geletara, ikasteko eremu anitzeko proposamen metodologiko berritzaile batean oinarrituta.

Ikasteko eremuak curriculuma modu integratzailean artikulatzeko aukera ematen duten ingurune didaktikoak dira, elkarren artean konektatuta daude eta ikaskuntza hainbat ikuspegitatik eta testuinguru propioen bidez ziurtatzen dute, eskolan ezagutza errealitate berrien bidea zabaltzeko.



Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle



Ikaskuntza Testuinguru Berria La Salle

Bizi ezazu!



Hezkuntza elkartea

Ikaslearen ondoan dago beti, orientazioa eman eta dimentsio guztietan hazten eta hezten laguntzeko.



Eskola

Jakiteari adinako garrantzia ematen dio izateari, esperimintatzeari, sentitzeari, elkarbanatzeari eta ospatzeari.



Ikaslea

Protagonista da bere ikaste prozesuan. Lanerako tresna ditu sortzea, elkarbanatzea, esperimintatzea...



Familia

Bizipen guztietan eta ospakizunetan parte hartzen du ikaslearekin batera.



Ebaluazioa

Osoa eta dimentsio guztietan.

lasalleikastetxeak.org



Hezkuntza eraldatuz, mundua eraldatzen dugu.

ITB Ikasteko eremuak

Harrera

Elkartzeko unea da, gogoeta egin, geure barnera begiratu, eguneko plangintza egin eta motibazioa piztekoa.

Taldean egiten dugu, elkarrekin.



Itxiera

Ikasteko zikloa osatzen du, sintesiaren, autoebaluazioaren, metakognizioaren eta ospakizunaren bidez.

Gogoeta egin eta ikasitakoa barneratzeko unea da.

Mintegia

Oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak ikasten dira mintegietan, "jakintza" hori erabiliko baitugu proiektuetan eta tailerretan ikasteko.

Matematika, hizkuntza, natura ingurune eta gizarteko curriculum edukiak indartzeko gunea da.



Kontzeptuak, estrategiak, pentsaera matematiko-zientifikoa eta bestelako eduki oinarrizkoak ikasten dira.

Tailerra

Era integratzailean garatzen ditu pertsonaren dimentsio zientifiko-matematikoa, humanistikoa, artistikoa, teknologikoa eta espiritual-transzendentea.

Manipulazioaren eta esperimazioaren bizipenak ditu oinarri, dimentsio horiek guztiak lantzeko.




Proiektua

Ikasleak dira beren garapen prozesuaren protagonista nagusiak. Proiektuek kompetentziak eta diziplinartekotasuna lantzeko egoerak planteatzen dizkiete.

Hainbat errokaren bidez, bizikidetzaren, ingurumenaren iraunkortasuna, norberaren ezagutza, artearen historia, zientziaren aurrerapenak eta beste arlo asko lantzen dituzte.

Dimentsio soziala, norbanakoaren ardura, goi mailako prozedura kognitiboak, ikerketa, analisia eta estrategien erabilera garatzen ditu.



Prozedurak eta estrategiak ikasten dira.